

*ARTEA ETA BOTEREA EGIPTO
FARAONIAARREAN*

Ekialde Hurbileko Artearen Historia.

Belate Amondarain Casado.

2020-2021

Aurkibidea:

1. **Laburpena**.....(3.-4-5.orr)
2. **Erlazioan jarri beharreko artelanak:**
 - 2.1.....(6.orr)
 - 2.2.....(6.-7.orr)
 - 2.3.....(7.orr)
 - 2.4.....(7.-8.orr)
 - 2.5.....(8.orr)
 - 2.6.....(8.-9.orr)
 - 2.7.....(9.-10.orr)
3. **Ondorioa**.....(10.orr)
4. **Irudiak**.....(11.-12.orr)

I.LABURPENA

I. Arte faraoiarra: SARRERA

Ezagutzen dugun arte faraonikoa, maisutasunez eta trebetasunez egiten zela ageria da. Artea funtzio eta erregela batzuen baitan zuzentzen zen, funtzio zehatzak betetzeko egiten baitzen, hala nola, artea erlijioa edo faraoiaren zerbitzura egoteak, hura nola izango zen markatzen zuen. Ulertu behar dena, arte faraonikoa Egiptoko biztanleek bizi izan zuten esperientzia erlijiosoaren isla izan zela da. Hainbat kulturetan bezala, Egiptoko ideologian, magia eta sinesmenak zentralitatea eskuratzen zuten eta hori jakinda, haiek sortzen zituzten irudiak, nolabaiteko magia adierazten zuten; Egiptoko espresio plastikoak ez ziren irudia irudikatzen mugatzen, irudiek bizitzan parte hartu behar zuten eta hilezkorrak izan behar ziren. Baxu-erliebeak, horma-pinturak, eskulturak...helburu gisa, mundu perfektu eta egonkorraren ideia sortzea eta mantentzea zuten. Irudiek eguneroko bizitzaren perfekzioa eta ordena irudikatzen zuten, euren bizitzan oinarritzko kontzeptua zen ORDENA irudikatzen zuen edozein irudik, patroian bihurtuz, mendeetan zehar kontzeptu bera azaltzeko, patroia erabiltzen zuten. Egipziarrek errealitatea irudikatzea zuten helburu, egunerokotasuna armoniaz eta edertasunez irudikatzeak, askotan eguneroko horren idealizaziora eramane zien; gutxitan errealitatearen aspektu ilunak agertzen ziren. Hala ere, aipatutako aspektuak agertzekotan, faraoiaren figura, babesle eta indar negatiboen garaile gisa aurkeztuko zaigu. Errealitatearen inperfekzioak irudikatzeak arazorik ez zuten, hala nola, Inperio Zaharrean, arazo mentalak edota desitxuratzeko fisikoa zuten pertsoniak irudikatu ziren. Irudiek errealitatea transmititu nahi zuten heinean, banakoaren itxura zen bezala azaldu behar zuten, adibide gisa, Iti, Parathuren (Punt-eko gobernaria) emaztea dugu. Arte faraonikoaren irudi gehienak, faraoiaren (bere inguruko pertsonen), goi-funtzionarioen, nobleen...errepresentazioak ziren. Lehen esan bezala, egunerokoaren eszenak idealizatuz, irudiak idealizatzen zituzten. Laburbilduz, eszenek kosmosaren ordena eta hilobiratze betierearen sinesmena kontzeptuei txertatzen ziren.

II. Boterearen pertsonifikazioa

Faraoiaren jatorria, izaera jainkotiarra hurbiltzen zen. Jatorri jainkotiarra inskripzio zein irudietan sinbolizatzen zen; hainbat dokumentutan jainkoek faraoiei hainbat elementuz (urrezko gorputza, euren buruetan lapislazulia edukitzea...) hornitu zituztela

diote. Izaera hori zuen pertsona, gizartean figura klabea zen; kosmosa ahula zen heinean, hura defendatuko zuena baitzen, hortaz, faraoiaren betebeherra hura zen: Maat mantentzea eta kaosaren aurrean, ordena defendatzea eta inposatzea. Horren harira, faraoiaren irudiaren beharrekotasuna ikonografikoki adierazteak, ibilbide politikoaren dokumentazioa 2.plano batean gelditzea eragin zuen. Faraoiaren funtzioak ugari ziren: jainko-gizakien arteko bitartekaria izatea, tenpluen gurtza eta eskaintzak aurrera eramatea...Gainera lider politikoa izanik, ``Bi lurraldeen erregea`` figura garrantzitsutzat zuten. Artelanen monumentaltasuna aztertuz, bere boterea horren isla zela ondoriozta dezakegu. Laburbilduz, faraoia herrialdeko sinbolo nagusia zen eta hori egiaztatzeko titulu errealak eta intsigniak zeuden. Tituluei dagokienez, faraoiaren izaera jainkotiarra azpimarratzeko beste bide bat zen. Tituluak, izenez eta epitetoz osatzen ziren; 5 izenak inskripzio hieroglifikoen bidez agertzen ziren. Izenek, hainbat jainkoei erreferentzia egiten zieten, jainko-faraoi erlazioa indartsua zela gogorarazteko:

1. ``Horusen izena`` faraoia Horusen adierazpena zela azalduz (titulaziorik garrantzitsuena hori zen, erregearen *ka*-rekin erlazioan baitzegoen). Serej izeneko marko laukizuzen batean, titulazioa agertzen zen eta arkitektura baten fatxada (Horus bizi den tokia) eta belatza (Horusen ikonofrafia nagusia) atxikituta zeuden.
2. ``Bi andreak`` zen, Nejbet (putrea, Goi Egiptoko jainkosa) eta Wadjet (kobra, Behe Egiptoko jainkosa). Koro gorria eta txuria eurak sinbolizatzen zuten (Egiptoko bi lurraldeak)
3. ``Urrezko Horus``
4. ``Goi eta Behe Egiptoko jauna``
5. ``Re-ren semea``

Titulazioez aparte, intsigniak zeuden. Regalia izenez ezagututa, erregearen atributuei deritzegu. Atributu esanguratsuenak, bizar faltsua (kurbatua edo luzea eta karratua), Goi Egiptoko koro txuria, Behe Egiptoko koro gorria eta elkarren artean osatzen zuten koro bikoitza ziren. Beste koro batzuk identifikatu izan dira (gerrako koroa, koro urdina...) baina koro txuria, gorria, bikoitza eta urdina ohikoenak ziren. *Ureaus*, erregearen ileordean kobra agertzeari deritzogu, faraoiaren etsaien kontrako bortizkeriari erreferentzia egiten zion (Wadjet, Behe Egiptoko jainkosari erreferentzia egin diezaiokeen ala Re-ren begia, hots, Hathor jainkosaren erreferentzia izan zitekeen).Beste alde batetik, zezen edo lehoiaren buztana regalia gisa ziren; jainkoak edo faraoiak jarrera gerrazalea edo garailea zutenean, atributua erabiltzen zen. Faraoiaren botere eraginkorra adierazteko, euren armak agertzen ziren; ohikoenak latigoa eta artzainaren bastoi kurbatua liratzeko. Dena dela, buru borobileko maza

elementu garrantzitsua zen. Arma horren konnotazioak arma defentsiboa izatetik urrun, naturaz gaindiko sinboloa izan zen, magikotzat zuten. Estandartea, faraoiaren izaera jainkotiarra oroitarazteko beste elementua zen, regaliaren parte ziren, estandarte bana bere esanahi propioa zuelako.

III. Jainkotasuna eta erregetza

Irudi zein eskulturek, faraoiak izaera jainkotiarraz gozaten zuela transmititzen zuten. Askotan erregea, jainkoak irudietan agertzean, bera beste jainko bezala agertzen da. Gizakiak agertzen diren irudietan, aldiz, bere naturaz gaindiko izaera azaltzeko, perspektiba hierarkikoz baliatzen da. Erregearen inguruko pertsonak eta goifuntzionarioen kasuan, perspektiba hierarkikoa erabil zezaketen. Lehen aipatu legez, faraoiak bere jainkotasuna adierazi behar zuen irudietan, regalia osatzen zuten atributo ikonografikoak zerabil. Erregeak, ikonografia eta epitetoak lurreko jainkoa zela ulertarazteko erabiltzen zituen, baina jainko nagusien semetzat aurkezten zen, hau da, erregea jainko absoluto gisa ez zen aurkezten (gutxitan, erregea behin hilda, jainkotasun absolutoa eskuratzen zuen). Erregetza instituzio bezala existitzea, Egiptoren gizartean nahitaezko elementua zen; orden soziala uler zezaten, erregetza behar zuten. Egiptoko historian zehar, krisiak zein tartekoaldiak egon ziren arren, suntsitu ezin izan zuten elementua, erregetza izan zen. Instituzioaren ahultasuna, indarra eta haren berezko izaera, Inperio Ertaineko literaturan adierazita gelditu zen (1.tarteko aldiko garai latzak kontuan hartu baitzituzten).

IV. Erregearen irudia:

Arte faraoiarran, botere absolutoa jainkoen eskutan dagoela adierazten da, askotan, faraoiaren eskutan, jainko bezala irudikatzean. Bere figura, babesle garaitezina bezala edo gizaki eta jainkoen bitartekari bezala agertzen da. Babesle garaitezina bezala, haren etsaien aurkako garaile absoluto bezala agertzen da (adibidez, Seti I.aren kanpai militarrek Siria eta Palestinan). Egiptoko lurraldearen batasunaren garaian, IV.mendeko amaieran, I.dinastiaren hasieran, Egiptok kodifikazio-prozesua, deritzogun prozesu artistikoa bizi izan zuen, non arteko oinarriak finkatzeke zeuden eta espermentazio aldia heldu zen. Errepresentazio plastikoak errepikatzen ziren, kode eta kanonak finkatuz, hots, errepikapena erregela batzuen baitan ematen zen eta testuinguru gabeko irudiek, erreferenzialitatea eskuratu zuten eta eszena isolatu batetik, tipologia berria asmatzera heldu ziren, besteak beste, Narmerrren Paletaren edukiarekin gertatu zen bezala. Eszena hori urteekin errepikatu zen eta errepikapenaren ondorioz, kanona sortzea lortu zuten.

Erregearen irudiaren analisia hobe azaltzeko, hurrengo artelan hauek laburtutako edukiarekin erlazioan jarriko ditugu.

II. ARTELANAK ERLAZIONATU:

II.I Ramses II.a (XIX.dinastia), Luxor:

Eskultura honek, Ramses II.aren erretratu eskultorikoa adierazten du. Inperio Berrian kokatu behar gara artelana uler dezagun eta Luxorren ``Amón tenpluan`` kokatzen da. Testuan azaltzen den moduan, artelanaren monumentaltasuna faraoiaren boterearen isla litzateke; boterearen pertsonifikazioa da. Regaliak, erregearen berezko atributoak nabariak dira, besteak beste, bizarra faltsuak (luzea eta karratua dena) jainkoaren ordezkoa dela esan nahi du; atributoak, jainkoek erregeei ematen dizkieten intsigniak baitira. Koroari dagokionez, koro bikoitza darama, hau da, Behe Egiptoko koro gorria eta Goi Egiptoko koro txuria. Bi lurraldeak menperatzen dituelaren sinboloa da (Egiptoko lurralde batasuna adierazten du). Nemes izeneko zapia modukoa buruan darama eta nemesari txertatuta, ureaus-a daukagu, kobra puztuta eta zutituta agertzean deritzogu. Kobrak, faraoiaren bortizkeria, haren etsaien kontra adierazten du eta Wadjet, Deltako jainkosari edo Ra-ren begiari erreferentzia egiten dio. Bere jarrera lasaia da, hieratikoki eta eskematikoki adierazita dago; behekaldean Amón jainkoaren erreferentzia daukagu, lumadun koroa duen figura baita. Esan bezala, ikonografia zein hieroglifikoak faraoiaren botere garaitezina eta beharrekotasuna adierazten dute, eskulturan zehar (Ramses-en sorbaldetan eta eskulturari altuera ematen dion aldaeran) inskripzioak daude. Azkenik aipatzea, Inperio Berriko eskultura izatean, Inperio Zaharrean sortutako kanon tradizionala jarraitzen duela, finean, erregearen babesletasun garaitezina eta ordena jartzen duen figura deskribatzeko, idealizatzen dute (gihartsua eginez, gaztetasunez irudikatuz, lasaitasuna espresio gisa jarritz...)

II.II Tutankamonen tronua (K.a 1325):

Tutankamón erregearen tronua darabilgu, konposizioa ez da konplexua baina dekorazioak asko esaten du. Polikromia artelanaren berezko protagonista da, lapislazulia eta urrea bezalako materialak erabiltzeak, aberastasuna eta kolorea ematen diote tronuari. Forma kurbatuko eserlekua dauka, Egipziar ontzien formari gogorarazten baitzaigu. Bi pieza desberdin dira, batetik eserlekua edo tronua daukagu eta bestetik, bere garaian faraoiak oinak bertan jartzeko zuten laukizuzen oinazpikoa. Sinbolikoki eserlekuarekin hasiko gara; lehenik bizkarraldeko dekorazioa *serej* bat da, laukizuzen formako markoan, belatza (Horusen irudikapena) eta arkitektura baten fatxada irudikatuta baitaude. Ate faltsuak diruditen arkitekturak dira. Horus agertzeak,

erregearen izaera jainkotiarra eta jainkoen arteko elkar komunikazioa, etengabekoa dela adierazten du. Bestetik, laukizuzen oinazpian ikonografia esanguratsua da, kutxa formako goikaldean `` bederatzi gatibuak`` agertzen dira. Faraoiak haren oinak gatibuen gainean jartzean, botere menperaezinen kontzeptua agerian uzten da; erregea babeslea eta garaitezina da, zibilizazio faraonikoak gizartearen indar potentzialki arriskutsuak izan daitekeenak, faraoiaren eskuetan uzten dira. Errealitatean irudi esanguratsua izan behar zen, Tutankamon bere tronuan esertzen ikustea, gatibuak zapaltzen zituen bitartean. Boterea islatzeko modurik hoberena zen.

II.III Seneb eta bere familia (K.a 2520):

Inperio Zaharreko eskultura da, aldi horretan asmatutako tipologia berria azaltzen du: unitate familiarren tipologia berria. Izaera pribatuko artelana da, Seneb goifuntzionarioak eskatuta. Artelana berezia da, Seneb nanismoa zuen (chondrodistrofia foetalis) eta hankak gurutzatuta ditu, haren deformazioa nabari ez zezan. Egipton, eskatzailearen betierea bermatzeko, errealitatean zen bezala agertu behar zen, betierea lortzeko errepresentazio leialak ziren. Horregatik guztiagatik, eskulturaren errealismoa Hankak tolestuak izateak, bloke eskulturak hutsunea uztea eragiten zuen, hortaz, seme-alaben (haurren) irudikapena egin zen, umeen irudikapen ikonografikoa beti berdina zen: biluzik agertzen ziren, emakumea izatekotan azala kolore txurikoa eta mutila izatekotan azala gorri edo ilunagoa izan behar zen, hatzamarra ahora eramanda irudikatzen ziren eta mutilek albo batean txirikorda eramaten zuten. Seneb-en emaztearen azal-kolorea txuria da eta Seneb-ena gorria. Emaztea, Seneb besarkatzen dago, besoa bere atzekaldetik darama eta babestasan sentsazioa ematen du. Inskripzioak, idazkera hieroglifikoan idatziak daude eta azkenik, polikromiaren garrantzia azpimarratzekoa da, gaur egun kolorea galdu arren bere garaian guztiz polikromatuta zegoen.

II.IV Ramses II.a Anubis eta Horus (XIX.dinastia):

“Ramses II.a, Horus eta Anubis” irudia horma-pintura dela esan dezakegu. Artelana aztartzean, eszenan Ramses erdian, ezkerrean Horus, eta eskuinean Anubis kokatzen dira, Triada sortuz. Jainkoek faraoia eskuetatik hartzen dute eta libre gelditzen zaien eskua faraoiaren sorbaldan jartzen dute (gertutasuna sortuz). Ramsesek, atributoak darama: nemesa, ureaus, zezen edo lehoi buztana..eta orain arte agertu ez zaizkigun bitxikeriak, hala nola, lepokoa eta besokoak. Horus, koro bikoitza darama, faraoiak duen bezala, gonatik helduta, zezen edo lehoiaren buztana eta bukatzeko Anubisek buztana zintzilik darama. Ezaugarri formalei dagokionez, buruak perfilez, gorputza aurrez-aurre, hankak perfilez eta begia aurrez-aurre kokatuta daudela ikusiko dugu,

arte faraonikoan ohikoa den bezala. Kanon klasikoari erreparatuz, perspektibaz aparte, azala gorri kolorekoa dute. Hieroglifikoen erabilera nabaria da, inskripzioen bitartez faraoiaren boterea eta izaera jainkotiarra nabarmentzen da. Erregea, jainkoak baino altuera gehiago dauka, perspektiba hierarkikoa agerian utziz eta bere beharrekotasuna eta boterea nabarmenduz . Hala ere, gizakien gaineko figura zen arren, bere jainkotasuna estatuko jainko nagusien baino garrantzi murriztagoa zuen. Faraoia artelanean nabarmendu nahi duena, errege-jainkoen arteko etengabeko komunikazioa eta erlazioa litzateke.

II.V Seti I.aren kanpaina militarrek Siria eta Palestinan (XIX.dinastia), Karnak:

Karnak-eko tenpluan, pilonoan agertzen den irudia “Seti I.aren kanpai militarrek Siria eta Palestinan” litzateke. Duela mende askotako lana denez, gaur egun lanaren zati asko galdu izan dira eta horrek bere ikonografia lantzerako orduan, interpretazioa zailtzea ekarri du. Hala ere, faraoia eta Amón-en irudiak erraz ikus ditzakegu. Erregea, maza borobilarekin, koro gorriarekin (Behe Egiptoko koroarekin), gona motzarekin, bizar faltsuarekin ,koroari txertatutako ureaus-a... darama eta jarrera gerrazalea ematen dion lehoi edo zezenaren buztana darama. Erregearen jarrera bortitza da, etsaien kontran maza erabili behar duelaren mugimendu potentziala azaltzen da. Maza horren boterea, faraoia bezala, naturaz gaindikoa da; armaren botereaz, edozein etsaia faraoiaren boterearen aurrean jausiko litzateke. Azkeneko ideia hau artelanean azaltzen da; hortaz aparte, Amón jainkoaren presentzia daukagu, askotan erregeak jainkoaren aurrean jarduten du, jainkoa bere aurrean tente agertzen da, objektu bat erregearen aurrean jarriz. Jainkoak, regaliak ere baditu: lumadun koroa (Amón delaren seinale), bizar faltsua, lehoia edo zezenaren buztana, gona motza eta behekaldeko eskuak, *anj* bizitzaren gurutzea heltzen du. Berez, erregeak eskaintza bat dauka eszena ikusten duen jainkoarentzat. Erregea, etsaien eta jainkoaren inguruan, idazkera hieroglifikoz adierazitako inskripzioak daude; regaliak bezala, inskripzioak sinbolikoki erabiltzen ziren: faraoiaren beharra nabarmentzeko, haren boterearen handitasuna oroitarazteko...

II.VI Narmerren paleta (K.a 3050):

Narmerren paleta obra garrantzitsua zaigu Egiptoko artea aztertzeko. Paletak bi alde ditu (A eta B aldeak) eta horiek aztertuko ditugu:

A aurpegia:

Alde honetan, erregistroak nabariak dira, jainkoa perspektiba hierarkikoan azaltzen da eta bere jarrera ez da batere lasaia; basbesle garaitezinaren ideia eszenara bueltatzen

delarik. Boterea eta indarra azaltzeko, faraoiaren anatomia landuta dago (giharrak nabarmenduta daude, hanken tratamendua batik bat). Faraoiaren boterearen sinbolo diren (intsignia errealak) koroa txuria (Goi Egiptoko koroa), buru biribilduko maza, bizar faltsua, gona motza eta zezen edo lehoi buztana identifikatu ditzakegu, gainera oinutsik doa, jainkotasuna ematen dion ezaugarria. Faraoiak, maza biriribileko armarekin etsaia erasotuko du, etsaia lurrian garaituta dagoelarik. Eszenaren ideia nagusia, zapalketaren ideia litzateke, faraoiaren boterea garaitezina da, eta horren aurrean, bortizkeria erabiltzera behartuta dago. Beheko erregistroan, beste bi etsaien zapalketa agertzen da. Perspektiba hierarkikoaren esker, faraoiaren figura nabarmentzen da eta atzean bere zerbitzaria loto lorearekin ondoan azaltzen da. Botere garitzeina eta beldurra sortzearen, belatza den Horus (goialdean), etsai baten burua makil edo soka batekin eusten du. Azkenik, paletaren bi aldeetan behien agerpena daukagu, Hathor jainkosaren sinboloa direlarik.

B aurpegia:

Paletaren alde honetan, bestean bezala hainbat sekuentzia azaltzen dira; erregistrotan banatuta dago. Narmer Behe Egiptoko koroa gorriarekin azaltzen da eta bere atzean beraren zerbitzaria tamaina txikiago batean dago (erregea perspektiba hierarkikoan irudikatuta dago). Regaliak koroaz aparte, zezen edo lehoiaren buztana zintzilikaturik darabil, horrek gerra jarrera eta garaile jarrera adierazten du. Regalia gisa, estandarteak ditugu, Nermer faraoiak garaitutako herrialdeen estandarteak hieroglifikoak irudikatutak azaltzen dira eta azkeneko atributoa, A aldean zeraman mazoa jarrera lasaigo batean eskuan darama. ``Bederatzi gatibuak`` eta euren buruak hanketan agertzen dira; faraoiaren izaera garaitezina eta gerrazalea adierazteko. Faraoiaren kontra egiten duenari, haren zigorra azaltzen da, beldurra sortuz. 2. sekuentzian bi lehoi lepoluzeez, euren artean lepoa elkartzen dute; Behe eta Goi Egiptoren elkarketaren sinboloa litzateke. Azkenik behekaldeko sekuentzian, faraoia errepresentatzen duen zezena, hiri batean sartu eta garaitu duelaren seinale azaltzen da (zezena=faraoia/harresiak=hiria/zezena zapaltzen duen pertsona=etsaia). Aipatu beharra dago, zezena pertsona bat zapaltzen ari dela, hiri menperatuaren biztanlea litzatekeena, hots, faraoiaren etsaia. Zapaltzearen ekintza, etsaien suntsiketa dakar.

II.VII Ti-ren mastaba (V.dinastia):

Irudi hauek Tiren mastaba apaintzen zuten baxu-erliebeak dira. Lehenik eta behin, erregistrotan banatzen da. Erregistroen funtzioa, informazioa ahalik eta era

garbienean adieraztea da, faraoiak ondorengo bizitzan aurreko bizitzan izan zuen guztia kontserba zezan.. Figuren perspektibari dagokionez, aspektiba erabiltzen jarraitzen dute baina mugimendu iradoki daiteke: besoak altxatzeak edo figura batzuen buruaren posizioa biratuta izateak, mugimendu sentsazioa ematen dute. Animaliek bere aldetik, beste perspektiba diagonalagoa dute, perspektiba okertua deritzoguna. Abereen presentziarengatik zein eramaten duten tresneriagatik, abeltzainak direla edo nekazal-munduko figurak direla darabilgu. Bestetik, nolabaiteko dinamismoa sortzeko, figurak bata bestearen atzean jarri dituzte, errepikapena sortuz eta sekuentzia zinematografikoa dela dirudiz. Aipaturiko azkenekoa, mugimendua antzemateko beste teknika litzateke. Arte faraoniarreko irudi kanonikoari helduz, gizonak azal gorria dute, euren giharrak nabarmentzen dira (hanketan edo besoen tratamenduan azter daiteke), inskripzioak erregistroetan zehar daude...Egiptoko eguneroko bizitza idealizatuta agertzen da, mundo perfektu eta egonkorraren ideia mantentzeko nahia baitzuten.

III.ONDORIOA:

Aztertutako obrak, garatutako ``Arte y poder en el Egipto faraónico´´ María J. López Grande-ren lanarekin ongi txertatzen dira. Testuaren edukia, artelanen analisiarekin bat egin dute; ezaugarriak, ikonografia, garaiak...testuaren edukiaren elementuek, 7 obrekin erlazioa izan dute. Testuan, azkeneko orrialdean hainbat artelanen irudikapena eta euren deskribapen ikonografikoa ageri ziren; eurek, obrekin antzekotasun asko zituzten, askok tipologia berdinekoa baitira, besteak beste, Seti I Libiatarrek garaitzen Amónen tenpluan, Karnaken. Testuan, Narmarren paletaren analisia egiten da eta berriro ere, azalpen ikonografiko bera txerta dezakegu. Orokorrean, edukia ongi ulertzen den testua da, zeina Arte faraoniarra erakusten duten artelanetan ongi aplikatu daitekeena da. Azkenik, interesgarria suertatu dena, testuak ematen duen ikonografia analisiari esker, Egiptoko historian sortu diren artelan nagusien eta askoren azterketa ikonografikoa ulertzeko eta azaltzeko baliagarria zaigu.

IV. IRUDIAK:




I. Ramses II.a (XIX.dinastia),
Luxor




II. Tutankamonen tronua (K.a 1325)



III. Seneb eta bere familia
(K.a 2520)




IV. Ramses II, Horus eta
Anubis (XIX.dinastia)



V. Seti I.aren kanpai militarrek
Sirian eta Palestinan
(XIX.dinastia), Karnak.



VI. Narmerrren paleta (K.a 3050)



Tiren mastaba (V.dinastia)